

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen-iraunkortasunaren 2007ko txostena

2007ko ekainaren 5a

AURKIBIDEA

SARRERA	3
1. Mila kilometroko bidaia urrats batekin hasten da (Txinako esaera).....	5
2. Ingurumen-kalitatea hobetu egin da.....	7
3. Baliabide naturalen erabileran hain eredu intentsiboak ez erabiltzea	8
4. Bizitza babesten duen sarea ehuntzen	9
5. Presio handia jasaten duen lurraldea.....	10
6. Eusko Jaurlaritzaren helburua da Kyotoko konpromisoa betetzea	11
7. Aldaketarako betekizunak.....	12
8. Indar eragileak eta ingurumen-iraunkortasuna	13
9. Udalak eta herritarrak	14
10. Ingurumen-iraunkortasuna ekonomiarekin eta ezagutzaren gizartearekin integratzea.....	15
I. ERANSKINA: 2002-2006 IEPREN KONPROMISOAK BETETZEA.....	16
Konpromisoen betetze-mailaren laburpena	16

Lurraldea eta baliabide naturalak zaintzea, arnasten dugun airea, behar dugun ura eta bizi garen lurzorua zaintzea, biodibertsitatea eta gure inguruko paisaia zaintzea, gure kulturaren, historiaren eta ondare kolektiboaren zati baitira, bizi garen hiriguneak zaintzea, gizatiartzea, leuntzea, berdatzea, guztion ondasunak zaintzea, hala nola atmosfera, itsasoa, ibaiak, mendiak, padura... hori guztia bizitza zaintzeko ohorezko modua da, alegia, gu geu eta gure ondorengoak zaintzekoa.

SARRERA

2002-2020ko Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiak EAEko ingurumen-agenda egituratzen du, eta herrialdeko ingurumen-politikari epe luzerako norabidea eta aukerak eskaintzen dizkio. Estrategia hori indarrean dagoen bitartean, ekintzarako lau esparru-programa lotuko ditu. Programa horietan epe laburrerako helburuak eta helburu horiek lortzeko egin beharreko ekintzak zehazten dira. Lehenengo programa, 2002-2006ko Ingurumeneko Esparru Programa (IEP) amaitu egin da. Hemen aurkezten dugun Ingurumen-iraunkortasunaren 2007ko txostenak programa horren azken balantzea egiten du, eta orain arte egindako ibilbidearen indarrak eta ahuleziak identifikatzen ditu. Hala, 2007-2010eko Ingurumeneko Esparru Programaren sarrera gisa erabil daiteke.

Azken bost urteetan gertatu denaren barruan ingurumen-elementu bakarra azpimarratu behar izanez gero, nazioarteko agendan indarrean sartu den energiaren eta klima-aldaketaren gaia azpimarratuko genuke, baita klimaren aldaketa antropogenikoak herrialdeko hainbat sektoretan eragiten duen kezka/sentsibilizazio handia ere. Azken aldian, Nazio Batuen Klima-aldaketari buruzko gobernuarteko panelaren (IPCC) laugarren txostena eta horrek dituen alderdi ekonomikoei buruzko Stern txostena bat etorri dira, meteorologian anomaliak hauteman dira (negu bereziki epela, euri gutxi) eta etengabe aipatu dute hori komunikabide handietan; horren guztiaren ondorioz, klimaren aldaketa bat-batean publiko zabalaren kontzientzian sartu da. Europako Ingurumen Agentziak iritzi-ikerketa baten emaitzak jakinarazi ditu orain dela gutxi, eta ikerketa horren arabera, klima-aldaketa da Europako gazteei gehien kezkatzen dien ingurumen-arazoa, segur aski, horrek komunikabideetan duen eragin handiaren ondorioz.

Giza ekintzak eragindako klima-aldaketa iraunkortasunaren agendako gai nagusia da, bai nazioartean, bai Euskal Autonomia Erkidegoan. Hori horrela da bi arrazoi hauengatik: klima-aldaketak inpaktu larriak ekar ditzake gure espeziearentzat eta biosferarentzat, eta arazoaren jatorria ekonomia eta gizartea mugiarazten dituen energia erabiltzeko moduan dago. Energia-eredua sistema ekonomikoaren erdigunean dago, eta horrek inertzia handia sortu eta interes indartsuak biltzen ditu. Ondorioz, ez da erraza hori aldatzea. Horri dagokionez, gogorarazi behar da IPCCren lehen txosten ofiziala 1990ean argitaratu zela, orain dela 17 urte. Txosten horretan CO₂-aren emisioak 1990eko mailekiko % 60-80 murrizteko beharra aipatzen zen dagoeneko, berotegi-efektua eragiten duten atmosferako gasen kontzentrazioa egonkortzeko. Txosten horretako ebidentziek NBERen Klima-aldaketari buruzko esparru-hitzarmena negoziatzea ekarri zuten.

Energia, garraioa eta lurraldea ingurumen-iraunkortasunaren gune gogorraren zati dira. Arlo horietan aurrerapauso handiak eman behar dira hurrengo belaunaldian. Europako

Batasunak urrats garrantzitsuak egin ditu energia eta klima-aldaketari buruzko politika sakonki aldatzeko. Modu esanguratsuan, 'industria-iraultza berria' martxan jartzeari buruz hitz egiten du dokumentuetan. Garraioa, berriz, ez da hainbeste mugitzen. Eta lurraldearen erabilerari buruz lehenbailehen sakonki hausnartzeko eskatzen du.

Klima-sisteman eragiten ari diren aldaketek gero eta interes handiagoa pizten dute, eta, segur aski, hori izango da ingurumen-iraunkortasunaren agendak aurrera egiteko indar eragile garrantzitsuena; klima-aldaketa barruan hartzen du agenda horrek, baina hori baino harantzago doa. Agenda hori behar bezala kudeatzeko denbora gero eta azkarrago doa aurrera. Zalantzarik gabe esan dezakegu alderdi hauek izango dutela lehentasuna Gobernu honetan hurrengo urteetan: biodibertsitatea babestea eta zaintzea, ingurumenari dagokionez iraunkorrakoak diren kontsumo-ereduetarako trantsizioa eta klima-aldaketaren aurkako borroka.

Iraunkortasunaren ikuspegitik, herrialde gisa bidegurutzean gaude. Datozen lau urteetan (2007-2010), garapen iraunkorraren aldeko apustu sendo eta hausturarik gabekoaren oinarriak finkatu behar dira. Ildo horri jarraituz, urrats garrantzitsua da Gobernu Kontseiluak onartu berri duen 'EAEko hazkunde eta aurrerapen sozialerako testuinguru ekonomikoaren eta erreformen programa (2006-2009)', garapen iraunkorraren hiru arloak koherentziaz batzen baititu Gobernuaren esparru estrategiko bakarrean.

Ingurumenaren arloan 'lehen mailan' dabilzan Europako herrialde eta eskualdeen artean Euskal Autonomia Erkidegoa kokatzea erronka handia da. Aukera asko eta onak ditugu urte batzuetan aurreratuenen artean kokatzeko, baina horretarako inertzia handiak kendu behar ditugu, gure herrialdeak ausardia- eta sormen-dosi handiak behar ditu, gizarte gisa dugun gaitasunarekin aldaketak egin behar ditugu ondasunak eta zerbitzuak sortzeko moduan, lanera eta ikastetxera joateko moduan, lurzorua erabiltzeko moduan, ura eta lurzorua bezalako baliabideak babesteko moduan, dibertsitate biologikoa zaintzeko eta babesteko moduan, hiriko eta industriako hondakinak sortzeko eta kudeatzeko moduan...

Aldaketa horiek, normalean, pixkanaka gertatzen dira, eta denbora behar dute funtsezko aurrerapen bihurtzeko. Horregatik, denbora-ikuspegi luzeekin lan egin behar da. Zentzu horretan, funtsezkoa da epe luzera egonkortasuna eskaintzen duten eta, epe labur eta ertainetako plan eta programetan oinarrituta, helburuei iraunkortasunez eta irmotasunez jarraitzen dieten politikak izatea.

Horixe da 2002-2020ko Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiaren funtzioa (aurten bost urte bete ditu). Lehen adierazi den bezala, Estrategia horrek etorkizun politiko egonkorra eskaintzen dio EAEko ingurumen-iraunkortasunari. 2006ko abenduaren 31n lehen fasea amaitu zen, lehen Ingurumeneko Esparru Programa amaitutakoan. Txosten honen helburua da programa horren azken balantzea egitea eta hurrengoaren aurkezpen-gutuna izatea.

1. Mila kilometroko bidaia urrats batekin hasten da (Txinako esaera)

2002-2020ko Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiak egin du lehen fasea. 2002-2006ko Ingurumeneko Esparru Programa emaitza oso onekin amaitu da, baina horrek ez du ezkutatu behar oraindik egiteko dagoen bide luzea. Gobernu gisa, dagoeneko prestatu dugu bigarren programa.

EAEko ingurumen-politikaren kudeaketa-sistema integratua koherentziaz egiten lagundu du 2002-2006ko Ingurumeneko Esparru Programak, bai epe ertainean eta luzean, bai epe laburrean. Ziklo hori alderdi hauek osatzen dute: diagnostiko sakona, lau urteko plangintza, segimendu-adierazleak, ebaluazio-txostenak, integrazio sektoriala, herritarren eta enpresen iritziaren ezagutza erregularra eta Estrategia bera berrikustea eta eguneratzea. Hori guztia eragile sozial eta ekonomikoen parte hartzeko prozesuekin osatzen da. Kudeaketa-sistema hori edukitzea funtsezkoa da —ez, ordea, nahikoa— ingurumenaren ikuspegitik arduratsuagoa den euskal gizartea lortzeko bidean aurrera egiteko.

Lehen Ingurumeneko Esparru Programak Gobernuaren kalitatean aurrera egiten lagundu du oinarrizko hiru elementuren bidez: politika, plan eta programen gardentasuna, euskal gizarteari kontuak ematea eta eragile sozial eta ekonomikoekin batera parte hartzeko prozesuei bultzada garrantzitsua ematea. Gardentasuna: Gobernuaren ingurumen-politikei buruzko informazioa eta haiek prestatzeko dokumentazioa eskuragarri egotea. Kontuak ematea: gure herrialdearen ingurumen-kalitaterantz aurrera egiteko aurrerapauso eta zailtasunei buruzko informazioa ematen duten adierazleen multzoa gizarteari erakustea aldizka. Gizarte zibilarren parte-hartze antolatua: bai lehendik dauden mekanismo formalen bidez, bai hainbat eragilerekin (administrazioa, udalerrriak, enpresak, elkarteak...) politikak prestatzeko berariaz martxan jarritako parte-hartzeko prozesuen bidez.

Azkenik, Programa indar eragile gisa aritu da gure herrialdearen ingurumen-kalitatea hobetzea ekarri duten dinamiken mobilizazioan. Aurrerapenak garrantzitsuak izan dira. Hala ere, hurrengo ataletan azaltzen den bezala, aurrerapenak ez dira denak berdinak izan.

Ingurumen-lorpenak eta -zailtasunak ikuspegi egokian kokatzeko kontuan hartu behar da dozenaka erakunde publikok, ehunka enpresek eta dozenaka milaka pertsonak egunero hartzen dituzten erabakiekin zuzenean eta estuki lotuta daudela alderdi hauek, besteak beste: hiriguneetan arnasten dugun airearen ingurumen-kalitatea, gure herrialdeko dibertsitate biologikoa eta paisaiak babestea, EAEn berotegi-efektua eragiten duten gasen emisio-mailak.

Erabaki horiek lotura handia dute tokiko erakundeek onartutako hirigintza-plangintzarekin; lantokitik hainbat kilometrora bizitzeko erabaki librearekin eta hara ibilgailu pribatuz edo garraio publikoz joatearen norberaren aukerarekin; jendea bizi den lekua zentro teknologiko, industrialde eta merkataritza-gune handietatik urrun egotearekin; kontsumitu ohi ditugun produktu eta ondasunen jatorriarekin (haien

garraioarekin lotutako ingurumen-kosten ezberdintasunaren ondorioz); lurraldean eraikitzen diren azpiegituren sarearekin...

Ingurumen-kalitate hobeko ekonomiarantz eta gizarterantz aurrera egiteko, erabaki isolatu, integratu gabe eta ingurumen-eraginetatik deskonektatuta dauden horiek elkarren artean lortu behar dira, ikuspegi zabalago batean bateratzeko. Hori erronka konplexua eta zorrotza da.

Horregatik, ingurumena *guztiona dela* esatean (erantzukizun partekatuko printzipioa) erabateko egia aipatzen da. Garraio-politikan, energia-politikan, hirigintza- eta industria-plangintzan, nekazaritzan, harrobietan, eraikuntzan eta aurrekontu-plangintzan ingurumen-alderdiak sartzeari gure herrialdeko ingurumen-aurrerapenerako *lehenengo baldintza* dela esatean, faktore kritikoa aipatzen da. Hainbat eragile sozial eta ekonomikok behin eta berriz esaten dute funtsezkoa dela herritarrek hautematea herrialde honetako erakunde publikoek (governua, foru-aldundiak, udalak) indarrak batzen dituztela eta ingurumen-norabide berean aurrera doazela, eta, horrekin batera, funtsezko beste elementu bat aipatzen dute. Elementu hori identifikatzea erraza da; hura kudeatzea, ordea, ez da beti erraza.

Testuinguru horretan, Gobernu honek eta herrialdeak norabide zuzenean aurrera egin dezaten lagundu du 2002-2006ko Ingurumeneko Esparru Programak. Lehen adierazi den bezala, lorpenak garrantzitsuak izan dira, baina arlo batzuetan aurrera egiteko zailtasunak ere handiak izan dira.

2. Ingurumen-kalitatea hobetu egin da

Gure ibai, estuario eta kostaldeko uraren kalitatea, arnasten dugun airearen kalitatea eta lurzoruaren kalitatea hobetu egin dira. Hala ere, hurrengo urteetan arlo horietan gogo handiz aurrera egiten jarraitu behar da.

2000-2005 bitartean (biak barne), ibaietako **uren** kalitatea hobetu egin da (estazioen % 43k emaitza positiboak erakusten dituzte azken urtean, denboraldi horren hasieran, berriz, % 17k bakarrik). Dena den, 2003. urtera arte emandako aurrerapena eten egin da, eta azken bi denboraldietan kalitatea egonkor mantendu da; batzuetan, ordea, okerrera ere egin du. Saneamendu-plan zuzentzailea martxan jartzea erabakigarria izan da ibaien kalitatea hobetzeko, eta aurrerapen garrantzitsuak eman dira, adibidez, Nerbioi Beherean. Plan horren amaierak, haren zabaltzeak eta hobekuntzak barne, berehalako etorkizunean jarraitu beharreko ibilbidea zehazten dute. 1998-2005 denboraldian, ezin izan da gehiegi hobetu estuarioko uren kalitatea. 2005ean egindako laginketa-guneen % 47k poluzio-mailak erregistratu zituzten. Kostaldeko uren kalitatea, berriz, nabarmen hobetu da. Hiru laginketa-guneetatik ia bik poluziorik ez dagoela erakutsi dute. 1998an, berriz, % 23koa izan zen horren emaitza.

Airearen kalitateak arazoak erakusten ditu oraindik ere Deba Goienean, Donostialdean, Oria Goienean eta Nerbioi Beherean, batik bat, ibilgailuen trafikoko handiarengatik. PM10 mikropartikulen immisio-maila osagai kaltegarriena da airearen kalitateari dagokionez, arnasketa-gaixotasunekin lotura zuzena baitute. Herrialdeko eremu batzuetan, Europako Batasunak ezarritako immisio-mailak gainditzen dira oraindik ere, baina kaltetutako udalerrak airearen kalitatea hobetzeko planak lantzen ari dira. Emisio poluitzaileen (ozono troposferikoko substantzia azidotzaileak eta aitzindariak) bilakaerari dagokionez, 1990etik 2005erako bilakaera positiboa izan da, baina ez erabatekoa (15 urte horietan, lehengoaren kasuan % 11ko murrizketa egon da, eta bigarrenaren kasuan % 6,4). NOx-ren emisioen bilakaera negatiboa izan da, % 15 igo baita urte horietan zehar.

Lurzoruak artifizialtzea, poluzioa, higadura, zatitzea eta zigilatzea eragiten duten presio eta inpaktuei aurre egin behar die. Inpaktu horiek sortzen dituzten indar eragileak hainbat dira, eta indartsuak dira (industria-, merkataritza- eta garraio-azpiegiturak; nekazaritza-jarduera intentsiboak; azpiegitura linealen sarea hedatzea...). Lurzoruaren poluzioa iraganetik datorren arazoa da kasu gehienetan, eta behar bezala kudeatzen ari da. Poluitutako lurzoruen berreskuratzeak aurrera jarraitu du, eta 2005ean 230 hektarea berreskuratu ziren. Lurzoruaren poluzioa prebenitzeko eta zuzentzeko legea, Poluitutako lurzoruen plana (bideratze-fase aurreratuan) eta lurzoruen kalitatea ikertzeko eta berreskuratzeak erakundeak egiaztatzeak sistema ezartzen duen Dekretua onartzea funtsezko mugak dira datozen urteetan norabide horretan aurrera jarraitzeko.

3. Baliabide naturalen erabileran hain eredu intentsiboak ez erabiltzea

Baliabide naturalen kontsumoa (ura, energia eta materialak) eraginkorragoa da, eta sortutako hondakinak iraganean baino hobeto kudeatzen dira. Dena den, haien eskaera eta produkzioak gorantz jarraitzen dute.

Ekoeraginkortasunean eta euskal ekonomiaren desmaterializazioan aurrera egitea funtsezkoa da gure herrialdeko aztarna ekologikoa murriztu nahi bada. Baliabide naturalen erabilerako ekonomia eraginkorra hobeto prestatuta dago berrikuntzarantz eta jakintzarantz bideratzeko. Eskandinaviako herrialdeek dituzte emaitzarik onenak mundu mailan berrikuntzaren, gizarte eta giza garapenaren, teknologia berrien aplikazioaren, kohesio sozialaren eta ingurumen-iraunkortasunaren arloan. Azken hamarkadan herrialde horiek erakutsi dute berrikuntza eta jakintzarantz bideratutako ekonomiak, eta hori ingurumena errespetatuz egiten duenak, kalitatezko enplegua, hazkunde ekonomikoa eta kohesio soziala sortzen dituela aldi berean.

Gehiago gutxiagorekin produzitzea, produktu-unitateko hondakin gutxiago sortzea eta BPGaren unitate ekonomikoko energia gutxiago kontsumitzea ekonomia garbiagoari, eraginkorragoari eta berriagori erreferentzia egiteko modu ezberdinak dira. Erregai fosilen energia ez da berriztagarria, emisioak eta poluzioa sortzen ditu, inportatu egiten da eta gero eta garestiagoa da. Hala ere, erakundeek, zerbitzuek, garraioek, etxeek eta pertsonak erregai fosilen energia-kantitate asko kontsumitzen dute.

Euskal Autonomia Erkidegoko **energiaren azken kontsumoa** % 39 handitu da 1990 eta 2005 bitartean, ekonomiaren hazkundera baino gutxiago. Hala ere, kezkarria da euskal ekonomiaren energia-intentsitatea 1997tik —hazkunde ekonomiko handiko urteekin bat etorriz— ez dela hobetu ikustea. Garraioaren sektoreak azken 15 urteetan EAEn izandako energia-kontsumoaren hazkunderaren % 56 eragin du; zerbitzuek, berriz, % 17.

Ur-kontsumoaren beherapena egonkortu egin da azken urteetan. Klima-aldaketak baliabide horren erabilgarritasunean izango duen eragina dela eta, prezipitazioen aldaketaren, lehorteen maiztasun eta larritasun handiagoaren eta ebapotranspirazioa gehitzearen ondorioz, garrantzitsua da banaketa-sareetako galeren murrizketari lehentasuna ematea, eskaera kudeatzeko planak martxan jartzea eta azpiegituren sarea eguneratzea.

Euskal ekonomiako **materialen kontsumoa** —Materialen Beharra Guztira— % 22 igo da 1990 eta 2004 bitartean. Horren arrazoia da metalezko mineralen inportazioa eta etxebizitzaren eraikuntzarako eta bideen azpiegiturarako hondeaketa-lanetan garraiatutako materialak gehitu egin direla. EAeko izaera industrial nabarmena gure ekonomiako materialen *per capita* kontsumo altuaren faktore erabakigarria da (96 tona pertsonako; Europako Batasuneko batezbestekoa 50 da).

Hiri-hondakinen eta industriako hondakin arriskutsuen kudeaketa nabarmen hobetu da. Hondakinen sortzea hazkunde ekonomikoarekin lotuta egon da, eta horregatik bi frakzioak handitu dira. Dena den, azken urteetan, egonkortzea nabari da hiri-hondakinen sortzean (560 kg inguru pertsonako eta urteko).

4. Bizitza babesten duen sarea ehuntzen

Euskal Autonomia Erkidegoan babestutako naturaguneen sarearen azalera asko handitu da azken urteotan. Gure esku dago 'sarea' ehuntzea biodibertsitatearen galera geldiarazteko.

EAEko administrazioaren lehentasun nagusia da biodibertsitatea zaintzea, eta, horretarako, ahalegin handiak egin eta baliabide garrantzitsuak erabiliko dira datozen urteotan. Espezie eta ekosistemen dibertsitate biologiko genetikoa eta paisaien kalitatea gure ondasun naturalaren funtsezko osagai izateaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoaren izaera kultural eta historikoak ere badira. Ondare hori pobretzea gu geu, pertsona eta gizarte gisa, pobretzea da. Gizartearen okupazio handia duen lurraldea da gurea; beraz, betebehar saihestezina da, guretzat eta datozen belaunaldientzat, oraindik nahiko natural izaten segitzen duten sistema naturalak eta paisaiak zaintzea.

EAEko ingurumen-iraunkortasunaren agendan hauek sartu dira: padurak babestea, paisaiak zaintzea, baso naturalak mantentzea, zabaltzea eta hobetzea, kostaldea zaintzea —itsaslabarrak, hondartzak eta estuarioak—, ibaien eta ibaiertzeko basoen naturaltasuna babestea, eta, batez ere, gure lurraldean dauden beste bizidunak babestea.

Hori dela eta, oso urrats garrantzitsuak egin dira lurraldeko azalera handitzeko. Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko azaleraren % 23 naturagune babestuek, Urdaibaiko Biosferaren Erreserbak edo Natura 2000 Sareak osatzen dute. Gure herrialdea geografikoki txikia denez eta giza okupazio handia duenez, agerian geratzen da Gobernuak garrantzi handia eman diola bizitza naturalaren, ekosistemen eta paisaien kontserbazioari.

2002-2006 Ingurumeneko Esparru Programa indarraldian egon denean, horiez gain, biodibertsitatea babesteko beste urrats batzuk ere egin dira. Euskal Autonomia Erkidegoko Korridore ekologikoen sarea sortzeko oinarriak ezarri dira, Biodibertsitatearen Behatokia sortu da, mehatxupear dauden flora- eta fauna-espezieak kudeatzeko plan ugari onartu dira eta Biodibertsitatearen interpretazio-zentroaren eraikuntzan aurrera egin da. EAEko espezie mehatxatuen inbentarioan desagertzeko arriskuan dauden 34 ornodun-espezie inguru identifikatu dira.

5. Presio handia jasaten duen lurraldea

Lurralde-antolakuntzaren arloan tresna aurreratuak eduki arren, azken 15 urteetan gure herrialdeak lurralde-zatiketa eta artifizialtze-prozesu garrantzitsuak jasan ditu. Horren guztiaren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko ondare naturala pobretu egin da.

Euskal Autonomia Erkidegoan garatu den lurralde-eredua estatuko beste toki batzuetan (bereziki Mediterraneoako kostan) azken 10 urteetan garatutakoa baino askoz ere orekatuagoa da. Udalaz gaindiko esparruetan kontrol-mekanismo garrantzitsuak izan ditugu; eta, horiei esker, hirien zabalkuntza-planek lurraldean eragin dituzten presio bortitzak eragozteko lortu ez badugu ere, mugatu eta indargetu egin ditugu.

Nahitaezkoa da lurzoru naturala zaintzea, eta balio handiko aktibo gisa hartzea. Lurzoru naturala ez litzateke artifizialdu behar, lehendik urbanizatutako tokien alternatibak prozesu zorrotz baten bidez sistematikoki aztertu eta baztertu baldin badira. Adibidez, ez da erraza justifikatzea zenbait industrialdetako lurzoru industrialaren metro karratu ugari erabili gabe badaude, industrialde gehiago eraikitzea lurzoru natural emankorretan. Prozesu horiek askoz ere ikuspegi kritikoagoarekin aztertu behar dira lurraldearen babes zorrotzari dagokionez.

1997an onartutako Lurraldea Antolatzeke Jarraibideak izan dira gure herrialdeko espazio fisikoa antolatzeke tresna nagusia. Gaur egun, jarraibide horiek aztertzen eta eguneratzen ari da Gobernua, etorkizuneko lurralde-antolamenduak aldi berean 2007-2010eko Ingurumen Esparru Programan finkatu ditugun ingurumen-helburu berriak lortzen laguntzeko.

Kostaldea da aldatzeko presio gehien jasan duen ekosistemetako bat. Hala, aipatzekoa da Kostaldeko Lurralde-plan sektoriala onartu dela, eta, horren arabera, kostaldeko lerrotik 500 metroko babes-eremu bat finkatu da.

6. Eusko Jaurlaritzaren helburua da Kyotoko konpromisoa betetzea

Eusko Jaurlaritzaren helburua da berotegi-efektua eragiten duten gasen emisio totalak % 14 jaistea 2012rako, 1990eko datuak kontuan hartuta¹

2005eko emisio totalak 1990ekoak baino % 24 handiagoak izan ziren; beraz, ahalegin handiagoa egin behar dugu datozen urteotan helburu hori lortzeko. Hilabete gutxi barru aurkeztuko zaizkio gizarteari hartutako erabakiak eta martxan jarri beharreko ekintzak, klima-aldaketaren aurkako EAEko planaren esparruan.

1990-2005 bitartean, berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioen balantze negatiboak izan dituzte sektore guztiek, industria-sektoreak salbu (-% 28). Nahiko kezkarriak dira, gainera, energia-sektoreari (% 199), garraioari (% 101) eta zerbitzuei (% 97) dagozkienak. Sektoreka, energia-sektorea da emisore nagusia (emisioen guztizkoaren % 34), eta, horren atzetik, garraioa (% 21) eta industria (% 20).

Oso zaila izango da herrialde gisa Kyotoko konpromisoa betetzea, EAEko energia-enpresa handien lankidetzarik gabe. Hori dela eta, oso garrantzitsua litzateke epe laburrean funtzionamendu-orduen murrizketa planifikatzea eta ekoizpen termoelektrikoko instalazio konbentzionalak pixkanaka ixteko plana egitea, oso ekarpen handia egiten baitiote EAEko berotegi-efektuko gasen emisioari.

Klima-aldaketaren aurkako neurriez gain, klima-aldaketari egokitzeko neurriak prestatu eta diseinatu behar ditugu egoera desberdinen azterketaren arabera. Klima-aldaketaren aurkako EAEko planak jasoko ditu arintzeko eta egokitzeko neurri horiek.

¹ Helburu hori 2008-2012 aldiko batez bestekoari dagokio

7. Aldaketarako betekizunak

Ingurumena sektoreen politiketan sartzeko lehen urratsak egin dira. Ingurumen-legerian eta tresna ekonomikoen aplikazioan aurreratu da. Erakundeen arteko koordinazio egonkorra bultzatu da. Ikerketa eta berrikuntza ingurumenaren alde egiten hasi dira.

2002-2020ko Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategian, helburuak behar bezala lortzeko zenbait betekizun zehaztu ziren. Betekizun horiek etengabe hobetuz joan behar dute estrategia indarrean dagoen bitartean.

2002an (estrategia onartu zen urtea) baino askoz ere gehiago erabiltzen da egun ingurumenaren ikuspegia Eusko Jaurlaritzako lurralde-antolamendu, energia, eraikuntza, garraio, nekazaritza, industria eta turismoko politiketan.

Administrazioaren jarrera eredugarrian ere aurrera egin da; izan ere, administrazioaren eraikinetan energia-ziurtagiria lortu da, ingurumena kudeatzeko sistemak martxan jarri dira eta erosketa publiko berdeak normalizatu egin dira. Hala, Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo Iraunkorreko Planean aurreikusi da 2010erako administrazio publikoaren kontratazioen % 40 ingurumen-iraunkortasuneko irizpideekin egitea.

EAEko administrazioaren hiru mailen arteko koordinazio instituzional egonkorreko esparru bat sortu da, Udalsarea 21, Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarearen bidez —Eusko Jaurlaritzak, hiru foru-aldundiek eta 180 udalerrik hartzen dute parte—.

Eusko Jaurlaritzak planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoei buruzko araudi propioa onartu du, hots, beste urrats bat egin du norabide berean. 2002-2006ko Ingurumeneko Esparru Programan zehaztutako konpromisoetan ere oso aurrerapauso zehatzak egin ziren, besteak beste: Ura Arautzeko Legea eta Hirigintza Legea onartzea, ingurumena hobetzeko sektore-planak sinatzea —altzairua, zementua, kimika, papera, galdaketa, hondakin-kudeatzaileak, beira/zeramika/karea, gainazal-tratamenduak—; ISO 14001 ingurumen-kudeaketako ziurtagiria edo Ekoscan Araua dute 1.000 enpresa inguruk EAEn; ingurumen-adierazleen banku bat dago —350 enpresak hartzen dute parte—, benchmarking-a eta ingurumeneko jardunbide egokiak zabaltzeko aukera emateko.

Nolanahi ere, bide luzea dugu aurretik; gauza garrantzitsu asko lortu ditugun arren, gure bide luzearen hasiera baino ez dira izan. Bereziki, politika guztietan ingurumen-irizpideak sartzen segitu behar dugu. Irizpide horiek edozein plangintza-prozesuren aurretik izan behar dira kontuan, batez ere, lurraldeari —artifizialtzea eta zatikatzea— eta baliabide naturalen kontsumoari dagozkien programetan eta planetan. Partikularrei eta enpresei erabakiak hartzen lagunduko dieten baliabide ekonomikoak aplikatzeari dagokionez eta Fiskalitate Berde baten garapenari dagokionez, gauza asko egin daitezke eta egin behar dira.

Eusko Jaurlaritzak aurrerapen garrantzitsuak egin ditu 'erreforma fiskal ekologikoa' delakoan; datozen lau urteetan, bigarren esparru-programaren arabera, zenbait alderdi landuko dira, besteak beste: ibilgailu pribatuaren erabilera mugatuko duten neurriak eta tokiko produktuak eta ekologikoak erostea bultzatzeko pizgarriak identifikatzeko neurriak ezarriko dira.

8. Indar eragileak eta ingurumen-iraunkortasuna

Ekonomia-sisteman dauden indar eragileek ingurumen-iraunkortasunarekin talka egiten duten inertziak dituzte. Pertsonen eta merkantzien garraioak arreta eta ahalegin bereziak behar ditu ingurumenarekin lerratzeko.

Garraioaren sektorean aurreratu beharko litzateke gehien datozen urteetan. Gure herrialdean dauden ingurumen-presio eta -inpaktu gehienek eragile horretara garamatzate. Oso indartsua da bidaiarien eta merkantzien garraioaren ereduaren inertzia. Erabaki-zentro askoren arabera da, ehunka mila pertsonaren lehentasun-kurbak eragiten dio, milaka enpresa txiki eta enpresaburu barne hartzen ditu, eta lurretik, itsasotik eta airetik egiten da.

Oso ezagunak dira horren eragin eta presioak: kalteak lurraldean, hiriko poluzioa, berotegi-efektuko gasen emisioak eta zarata. Gure herri asko autoek okupatuta daude, eta horrek kalte egiten dio gizarteko sektore zabalari bizitza-kalitateari. Buxadura-arazoei aparkatzeko arazoak gehitzen zaizkie (bigarren lerroan aparkatzen da, eta, bestela, espaloietan). Milaka pertsonaren bizitza-kalitatea kaltetu egiten da hiriko espazio publikoak auto pribatuz beteta baitaude bereizketarik gabe, eta batzuetan ematen du erakundearen kontrolari ihes egiten dion gizarte- eta ingurumen-arazoa dela.

Erakunde publikoek eta bereziki udalek lidergo politikoa hartu behar dute bere gain udalerrri barneko zirkulazioaren antolamenduarekin lotutako arloetan —mugikortasun-politika integratu baten bidez—, eta lehentasun handia eman behar diote arazoa gehien jasaten duten gizarte-sektoreen babesari —haurrak, gurasoak eta pertsona helduak—.

Energia-sektorea da klima-aldaketa murrizteko helburuen guneetako bat. Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioa asko handitu da sektorean 1990etik aurrera, eta inflexio-puntu bat izan behar du. Europako Batasunaren klima-aldaketari buruzko energia-politika berriaren esparruan, EAEk urrats sendoak egin behar ditu bere ekonomiaren energia-eraginkortasunean, energia berriztagarrien zabalkuntzan eta bioerregaien kontsumoan, baita energiaren esparruan I+G+Bko programak martxan jartzen ere.

Industriaren eraldaketak ekoeraginkortasunean oinarritu behar du, batez ere enpresa txiki eta ertainetan. Industriari bete-betean dagokio, helburu gisa, hondakin arriskutsuen sorrera murriztea. Eraikuntzaren sektorean, bestalde, Lurzoru eta Hirigintza Legea eta, energia berriztagarrien arloan, Eraikuntzako kode teknikoak aplikatu behar dira ahalik eta azkarren, eta eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen fluxuak ere behar bezala kudeatu behar dira ahalik eta azkarren. Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektorean, produktu fitosanitarioen erabilera gutxitzen segitu behar da, eta lur azpiko eta lur gaineko uren kalitateari eragiten dioten poluzio zehaztugabeak ere gutxitu behar dira.

9. Udalak eta herritarrak

Udalak euskal ingurumen-politikaren ardatza dira. Herritarren laguntza funtsezkoa da Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiak (2002-2020) arrakasta izan dezan.

Udalen ardura da barne-garraioaren fluxuak antolatzea. Hiri-antolamenduko planak sustatu eta onartzen dituzte, eta, horrenbestez, herritarren bizileku izango den hiri-eredua hautatzen dute; halaber, babestu beharreko landa-lurraren kantitatea eta kalitatea erabakitzen dute. Berdeguneen eta hiriko eta hiri inguruetakoko parkeen gaineko erabakiak hartzen dituzte, eta horrek eragina du biodibertsitatearen babesean. Eraikuntza-arauak ezartzen dituzte, eta horrek eragina du energia-kontsumoan, energia berriztagarrien aplikazioan... Zalantzarik gabe, udaletako hirigintza-plangintza giltzarria da udal iraunkorragoen diseinuan. Azken finean, udalak funtsezko eragileak dira ingurumen-iraunkortasunaren politikan, eta, horrenbestez, ezinbestekoa da behar dituzten giza baliabideez eta baliabide ekonomiko eta teknikoek hornitzea.

Lehenengo Ingurumeneko Esparru Programaren (2002-2006) esparruan, EAEko 10.000 biztanletik gorako 40 udalerrietako 28k ingurumen-teknikaria dute. 5.000 biztanletik gorako udalerrri guztiak daude Tokiko Agenda 21 ezartzeko prozesuan. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle gehienak Agenda 21ak dituzten udalerrietan bizi dira. Iraunkortasunerako euskal udalerrien sarea, Udalsarea 21, errealitate sendoa da jada, eta azken urteetan funtsezko eragilea izan da euskal ingurumen-iraunkortasunaren arloan. Mugikortasun iraunkor eta seguruak lortzeko planak errealitate izaten hasi dira.

Udalak oso gertuko erakundeak dira herritarrentzat, eta hala erakusten dute 2004ko Ekobarometroko datuek. Horregatik da hain garrantzitsua udalen izaera eredugarria. Bere energia-kontsumoa zaintzen duen, udal-instalazioetako energia-gastua kontu handiz begiratzen duen eta argiteria publikoa eraginkorra izateaz kezkatzen den udalak mezu baikorra igortzen die herritarrei.

Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiaren arrakasta herrialde honetako biztanleen artean duen atxikipenaren mende egongo da. Hain zuzen, herritarrek legitimatu, bermatu eta bultzatu behar dituzte iraunkortasun-agenda osatzen duten politika eta planak, beren eskakizun, iritzi eta jarduerekin. Ikuspegi horretatik, sentsibilizazioa, parte-hartzea eta ingurumen-hezkuntza behar-beharrezkoak dira. Gizarte zibil antolatua, eta, bereziki, erakunde kontserbazionistak, ekologistak eta natura babesten dutenak, eragile garrantzitsuak dira gizartearen kontzientziazteko eta sentsibilizatzeko lanean.

Hiriguneen, sistema naturalen eta paisaien ingurumen-kalitatea modu aktiboan defendatzen duen gizarte informatua eta sentsibilizatua, seme-alaben osasunaz arduratzen dena, eta, horrenbestez, haiek arnasten duten airearen kalitateaz arduratzen dena; gero eta kontsumo-ohitura arduratsuagoak dituen gizartearen, garraio publikoa erabiltzen duena lanera eta ikastera joateko; tokiko erakundeei parkeak eta berdeguneak eskatzen dizkien gizartearen, haurrek jolasteko tokia eta zaharrek atseden hartzeko izan ditzaten; dibertsitate biologikoa zaindu eta babesten duen gizartearen, eta ingurumen-arazo orokorren gaineko konpromisoak eskatzen dizkiguna (azken ekobarometro sozialaren arabera); ezaugarri horiek guztiak betetzen dituen gizarte heldua eta azkarra da, eta, ziurrenik, pixka bat zoriontsuagoa.

10. Ingurumen-iraunkortasuna ekonomiarekin eta ezagutzaren gizartearekin integratzea

Hurrengo lau urteetan, eta 2007-2010 IEA, garrantzitsuak izango dira ingurumen-iraunkortasunari dagokionez. Euskadik karbono gutxiko Europaren buruan kokatu behar du; horren alde egin du Europako Batasuneko energiari eta klima-aldaketari buruzko politika berrienak. Dioten moduan 'industria-iraultza berri bat' hastear badago, Euskadik lehen lerroan kokatu behar du. Berrikuntzaren eta ezagutzaren ekonomiarantz eta gizarterantz aurrera egiteko bidean, ezinbestekoa da ingurumen-iraunkortasuna txertatzea.


Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020) ingurumen-politikaren dokumentu bizia da, malgua, dinamikoa, etengabeko modelaketa-, eguneratze- eta hobetze-prozesuan dagoena, eta, aldi berean, Euskadi ingurumen-kalitate handiko toki bilakatzea du helburu.

Euskadiko ingurumenaren bigarren programa izango da datozen lau urteetan Euskadiko ingurumen-agenda bildu eta mugituko duen elementua. Klima-aldaketaren aurkako EAEko planak berehala zuzenduko ditu arlo horri dagozkion helburuak eta ekintzak. Gure herrialdeko biodibertsitatea babesteko asmoak ardua eta helburu nagusien artean jarraituko du. EAEko populazioaren gehiengoa bizi den hiriguneen ingurumen-kalitatea hobetzea izango da beste helburu nagusietako bat. Azkenik, ekoizpenaren ekoeraginkortasuna hobetzen eta kontsumo arduratsu eta zentzuzkoagorako bidean aurrera egiten saiatuko gara.


I. ERANSKINA: 2002-2006 IEPreN KONPROMISOAK BETETZEA

Konpromisoen betetze-mailaren laburpena


1. grafikoa. 2002-2006 IEPreN betetze-maila.



2. grafikoa. 2002-2006 IEPreN betetze-maila, HELBURUEN arabera.



3. grafikoa. 2002-2006 IEPreN betetze-maila, BEHARREZKO BALDINTZEN arabera.



1. XEDEA. Ur, Aire eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea

2002-2006 epean aurreikusitako konpromisoak




	Konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Oharrak
		Hasteko	Hasita	Aurrer.	Buka.	
1X03K	Emisio poluitzaileen Europako inbentarioko (EPER) poluitzaileen kontrolerako eta prebentziorako estrategia industria-sektorean.				<input checked="" type="checkbox"/>	2005-2006ko E-PRTR kanpaina zuzendu eta egin da eta E-PRTR metodologia garatu da, Emisioen eta poluitzaile-transmisioen Euskadiko Erregistroari dagozkion datuak gehitzeko E-PRTR metodologia garatu da. 'EPRTR Euskadi' informazioa trukatzeko eta EEERA MIMAM bidez datuak transmititzeko fitxategia sortu da.
1X04K	Behe-maiztasuneko (50 Hz) eremu elektromagnetikoen eta irradi-maiztasunen esposizio-mailen gutxi gorabeherako azterketa eta haiek murrizteko plana egitea	X				
1X05K	Zarata-maila handien eraginpean dagoen populazioari buruzko azterketa-diagnostikoa, eta haiek gutxitzeko estrategia			X		Gaur egun, 27 udalerrri ari dira zarata-mapak egiten. Zortzik ekintzak abian jarri dituzte eragina jasaten duen populazioa murrizteko
1X07K	Substantzia arriskutsu nagusiak ordezkatzeko estrategia	X				
1X08K	Produktuetan ingurumen-irizpideak erabiltzea sustatzeko programa (Bizi-zikloaren Analisia).				<input checked="" type="checkbox"/>	
1X11K	Iturri finkoetatik sortutako partikula-emisioen inbentarioa eta kontrol-estrategia bat egitea.				<input checked="" type="checkbox"/>	
1X12K	Airearen Kalitatea Zaintzeko Sarearen datuak Internet bidez jakinaraztea.				<input checked="" type="checkbox"/>	
1X13K	NO _x , NH ₃ eta CO emisioen inbentarioa eta emisio horiek kontrolatzeko estrategia egitea.			X		Une honetan, partikula, azidotzaile eta troposferako ozonoaren aitzindari hauen inbentarioa egiten ari dira: NO _x , NH ₃ , metanoa (CH ₄), partikulak, SO _x , CO eta KOLak.
1X14K	Poluitzaile atmosferikoen immisioaren muga-balioak edo alerta-atalaseak gainditzeko arriskua murrizteko planak egitea.				<input checked="" type="checkbox"/>	Airearen kalitatea hobetzeko udal-planak. Osasun Publikoaren Txostena.

	Konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Oharrak
		Hasteko	Hasita	Aurrer.	Buka.	
1X15K	20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan, airearen kalitatearen berri ematen duten informazio-panelak jartzea eta udalerrietan beste hainbat informazio-tresna erabiltzea.				<input checked="" type="checkbox"/>	Amorebieta-Etxano eta Lemoa udalerrietan airearen kalitateari buruzko bi informazio-panel instalatu dira. Konpromiso hori bete da Interneten airearen kalitate-sareari buruzko datuak etengabe emanez.
1X16K	Euskal Autonomia Erkidegoko Barruko Arroen Plangintza Hidrologikoa				<input checked="" type="checkbox"/>	Plan Hidrologikoa egiteko behar den dokumentazioa prestatzen ari dira. Jarraibide-proiektua idaztea ere kontuan hartu da, baita EAeko barne arroen eremuko plan hidrologikoen aplikazioari buruzko Jarraipen-txostena ere. Bi dokumentuak 2000/60/EEE Uraren esparru-direktiban oinarrituta daude. Horren 5. eta 6. artikuluei buruzko txostena ere amaitu da.
1X17K	2.000 biztanletik gorako herrietan saneamendu-azpiegiturak izatea 2006rako.			X		Eraikuntza- eta/edo esleipen-fasean.
1X20K	Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru Poluituen Plana				<input checked="" type="checkbox"/>	2007-2012 Lurzoruen Planaren proposamena idatzi da eta abian da Parte-hartze prozesua. Onartzeke.
1X21K	EAeko Lurzoru Poluituen Legea				<input checked="" type="checkbox"/>	
X122K	Higadurak lurralde osoan duen garrantzia zehatz-mehatz ezagutzea.				<input checked="" type="checkbox"/>	
1X23K	EAeko higadura kontrolatzeko eta prebenitzeko plana egitea eta higadura-prozesuek kaltetutako eremuak konpontzea.	X				
1X25K	Ingurumenean luze irauten duten substantzia kimikoen esposizioak, dietaren bidez hartuta, osasunerako duten arriskua balorizatzeko sistema.				<input checked="" type="checkbox"/>	
1X27K	Eragin handiena duten elikagaien toxiinfekzioen prebentzio eta kontrolerako plan integrala martxan jartzea, produkzio primariotik hasi eta kontsumitzaileeraino				<input checked="" type="checkbox"/>	
1X28K	Gizakientzako elikagaien etiketatzea ezartzea; horniketan erabilitako ekoizpen-modua adierazi beharko du.				<input checked="" type="checkbox"/>	

	Konpromiso Kuantitatiboak	Lortzeko aurreikuspena	Oharrak
1X06K	2006rako, ingurumena eta nekazaritza bateratzen dituen 55.000 hektareako azalera lortzeko aukera emango duten ingurumeneko eta nekazaritzako neurriak sustatzea eta lurralde mailako politika espezifikoak ezartzea. (4. xedean ere jasota dago konpromiso hau).		2004an, ingurumeneko eta nekazaritzako neurriak hartu zituzten nekazaritza-eremuen azalera 26.367 ha-koa da.
1X18K	EAEen ibilgu publikoetara eta luraren eta itsasoaren arteko eremuetara botatako poluitzaile-karga totalak 2006an, 2001ekin alderatuta, % 50 murriztea (% 60 Gipuzkoan; % 50 Bizkaian; % 20 Araban).		Kobre- eta zink-karga poluitzaileak % 63 eta % 85 murriztu dira 1998 urtearekin alderatuz gero. Fosforoarena eta nitrogenoarena, berriz, % 77 eta % 50, hurrenez hurren.
1X24K	2006rako EAEko poluitutako lurzoru publikoen % 20 berreskuratzea, 2001. urtea oinarritzat hartuz.		1990 eta 2005 bitartean, titulartasun publikoa duten 33 leku berreskuratuta dira (helburua: 34 leku).

Konpromiso jarraituak

	Konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Oharrak
		Hasteko	Hasita	Aurrer.	Buka.	
1X09K	Laneko arriskuen prebentzioa, higiene industrial eta ingurumena aintzat hartzen dituzten kudeaketa-sistemak bultzatzea.			X		Laneko Arriskuak Prebenitzeko saria sortu da. Laneko Arriskuak Prebenitzeko Kudeaketa-sistemaren ezarpena diruz lagundu da, eta LAPERi buruzko Trebakuntza, Dibulgazioa eta Ikerketa sustatu da.
1X19K	Lurzoru poluitu bati erabilera bat esleitzen zaionean, hirigintza-kudeaketaren eremuan sartutako lurzoru osoari ingurumenaren aldetik irtenbide egokia ematea.				<input checked="" type="checkbox"/>	
1X26K	Hausnarkariak elikatzeke abere-irinak erabiltzea behin betiko galarazita egongo direla zaintzea				<input checked="" type="checkbox"/>	




	Konpromiso KUANTITATIBOAK	Lortzeko aurreikuspena	Oharrak
X101K	Substantzia arriskutsuen ekoizpena, erabilera, emisioak eta isurketak ezabatzea, nazioarteko zientzia-komunitateak erabaki eta Europako araudietan txertatu ahala.		- Agente kimikoeak sortutako Arriskuen ebaluazioa. - 606/2003 EDan I, II eta lehentasunezkoa zerrendetan sailkatutako gaiantzat isurketa-mugak ezartzeko proposamena
